

Heavy Metal

Historia:

Heavy Metal musika 60ko hamarkadan sortu zela esan dezakegu, Black Sabbath, Deep Purple eta batez ere Led Zeppelin bezalako taldeekin. Korronte musikalki hau Hard Rock-aren ondoren etorri zen, autore batzuen bihurrikeriaren ondorioz. Lehenengo momentuan zaila zen bereiztea Hard Rock eta Heavy Metal-a, taldeen norabidea ez zegoelako finkaturik, baina gero, idazten zituzten letren bitartez errazago egin zen banatzea; Metala konposatzen zuten letrak gogorragoak ziren besteak baino eta denbora pasa ahala gero eta gogorragoak bihurtu ziren, soinuarekin gertatu zen bezala. Hasieran egindako musika Rock baino pixka bat arinagoa zen, baina gero eta bortitzagoa bilakatu zen, musikarien bertuosismoa agerian utziz. Musika honen beste ezaugarri bat ozentasuna da. Hain handia da ozentasunaren garrantzia Heavy Metal musikan zein amplifikagailu gabe ez litzateke musika mota hau existituko. Adibide bat jartzeagatik Manowar taldeak soinu errekor guztiak hautsi ditu bost edo sei aldiz jarraian eta orain marka hau 131'7Db-tan aurkitzen da, pasadan urteko 129'7Db-tan aurkitzen zelarik. Batzuen uztez,

Heavy boterea da, eta oso ozenki entzuten ez bada botere guztia galduko du eta ez da Heavy Metal izango. Garrantzi handia ematen zaion beste alde bat zuzenean ikusitako musika da; Heavy Metalezko taldeen ikuskinen berezitasun bat oso luze eta intentsuak izatea da; Talde gehienak hiru orduko kontzertuak ematen dute eta ez dute ia inoiz atsedetik egiten. Kontzertuetan ospea hartzen dute merezi duten taldeak, zeren eta estudioan egindako disko bat oso ona izan daiteke, baina taldea ez bada ona ez du zuzenean joko. Kontzertu hauek, normalean giropen handia daukate normalean eta horretarako izugarritzko dekoratu eta eszenatokiak prestatzen dira, non taldeko kideak korrika egiten dute show-a irauten bitartean

Kokapena:

Heavy Metal soinuaren sorburua Ingalaterra eta Estatu Batuak izan ziren; eta hemengoak dira oraindik ere talderik handienak. Ingalaterrakoak ziren, adibidez, Led Zeppelin, Black Sabbath edo Iron Maiden eta Estatu Batuarrek Metallica, Manowar edo Slayer. Nahiz eta Heavy Metalaren sorburua esandakoa izan gaur egun mundu osoan hedatu da eta estatu bakoitza bere estilo propioa dauka eta gero eta estatu gehiagok dauka talde onak. Adibidez Alemanian Metalaren iraultza garrantzitsu bat gertatu zen, Accept edo Blind Guardian taldeekin, eta estilo berri bat sortu zuten: Metal Alemaniarra. Estilo honen ezaugarriak bonbo bikoitzaren eta gitarren azkartasuna ziren eta oraingo joerarik hedatuena da eta baita disko gehien saltzen duena ere. Honen inguruan talde asko sortu dira eta honen adibide Stratovarius, Grave Digger, Helloween edo Gamma Ray ditugu. Beste gune garrantzitsu bat Eskandinavia da, non Metal soinuaren alderdirik *ilunena* kokatzen den. Hemengoak dira Death Metal eta Black Metal azpijeneroak, honen talde nagusiak In Flames eta Dark Tranquility edo Dimmu Borgir eta Venom urrenez urren. Eskualde honetan Heavy Metala oso garrantzi handia auka eta Hammerfall edo Dimmu Borgir taldeak listen lehenengo postura heldu ziren haien lehen diskoekin. Indar handia hartzen ari den beste toki bat Italia da. Hemengo Metala oso landuta dago eta koruak, instrumentu klasikoak (bibolinak, cembaloa, kamarako instrumentuak) erabiltzen dituzte. Jenero honen talderik garrantzitsuenak Rhapsody da, bere gitarra jolea momentukoa honenatarikoa delarik. Atlantiar itsasoko beste aldetik Sepultura, Ratos de Porao eta Angra taldeak heldu dira, Brasiletik hain zuzen ere. Hemengo musika gehienbat iraultzailea da eta sistemaren kontra doa, baina salbuespenak daude Angra taldea bezala. Ahaztu behar ez dugun beste leku bat Australia da, non AC/DC famatuak sortu ziren. Espainia mailan hitz egiten betidanik izan du arrakasta musika Heavy-a, baina gaur egun talde berria asko sortzen ari dira. Talde zaharrak ere oso arrakastatsuak izan ziren garai batean, Obús, Barón Rojo, Ángeles del Infierno adibide argi batzuk dira, asken hauek arrakasta internazionala izan zuten eta EEUU-etara eta Ingalaterrara exportatu zituzten diskoak.

Musikaririk Onenak:

Heavy Metalaren azkartasuna musikariak onak izatea erakarri zuen, baina

denboran zehar espezialki nabarmendu diren musikari batzuk egon dira, bai bere ahotsaz, abeslarien kasuan edo bai bere bertuosismoaz. Abeslarien alorrean abeslari on asko egon dira, baina kritikoen uztez onenak hiru dira, bai bere ahotsagatik edo bai bere abesteko eragatik nabarmendu direnak. Lehenengoa Ronnie James Dio da eta Black Sabbath taldean abestu egin zuen, orain bere izena eramaten duen taldea daukala. Bere ahotsa imitatzina da eta nahiz eta 55 urte baino gehiago izan oraindik ahotsik onena jarraitzen izaten du. Bigarrena Rob Halford dela esan dezakegu, Judas Priest taldearen abeslari zaharra. Bere ahotsa oso tonu aldakorra dauka eta gehienetan tonu oso agudoak erabiltzen ditu ahots-kordak esfortzatu gabe egiten dituenak. Hirugarrena Ozzy Osbourne da eta Dio-ren moduan Black Sabbath-en abestu zuen eta gero bere taldea osatu zuen. Orain dela gutxi bere asken jira egin zuen erretiratu baino lehen. Beste abeslari nabariak Bruce Dickinson (Iron Maiden), Udo (Accept), King Diamond (Mercyful Fate), Eric Adams (Manowar) eta Phil Anselmo (Pantera) dira. Emakumezko ahotsak ere badaude Sinergy, Doro Pesch, Dark Moor edo Therion bezalako taldeetan, baina oraindik ez dute arrakasta handirik, gutxi daudelako.

Nahiz eta gaur egun jende gehienak ez eman, baxua Heavy Metal-eko talde bateko instrumenturik garrantzitsuen da, taldeko beste guztiek erritmoa jarraitzeko erabiltzen da eta. Arlo honetan lau musikari nabarmendu behar ditugu: Steve Harris (Iron Maiden), Joey DeMaio (Manowar), Cliff Burton (Metallica) eta Matt Sinner (Sinner, Primal Fear). Beste baxu jole on batzuk ere badaude, baina ez dute hain ospe handia: Tom Araya (Slayer), Hansi Kurch (Blind Guardian)

Bateria jotzen dutenei buruz hitz egiten esan dezakegu bateria asko egon direla Heavy Metalaren historian baina gutxi batzuk bakarrik izan direla onak. Hasteko esan behar da bateria jole bate ebaluatzeko bere azkartasunaz eta bere erritmoaz egin behar dela. Bateria onenak Bill Ward, Black Sabbath-ekoa; *Bonzo*, Led Zeppeling-ekoa; Dave Lombardo, Slayer-en jotzen zuena eta Nicko McBrain, Iron Maiden-ekoa. Ezin dugu ahaztu Judas Priest, Blind Guardian edo Manowar ere, haien bateriak onak direlako, baina ez dira izan influentzia handirik inorentzako.

Iron Maiden taldearen historia 1972. urtean hasi zen, Gypsy's Kiss taldearekin, hau izan zelako Steve Harris izan zuen lehenengo taldea. Talde hau hamazazpi urteko lagun arteko talde bat zen. Guztiok bezala denbora-pasa utz bat zen eta ez zeukan inolako etorkizunik. 1974. urtean Stevek, Smiler taldea sortu zuen aurrekoa utziz, baina honekin ere porrot egin zuen. Hirugarren saiakeran lehenengo Iron Maiden osatu zuen, zeineneko partaideak Paul Day ahotsean, Dave Sullivan gitarran, Terry Rance gitarra erritmikoan, Steve Harris baxuan eta Ron Mathews baterian ziren. Partaidetza hau ia osoa aldatu zen hurrengo urtean eta bakarrik azken biak (Harris eta Mathews) jarraitu zuten, baina gitarra erritmikora Dave Murray sartu zen eta gitarra nagusia jotzera Bob Sawyer sartu zen, baina urte honen amaieran asken hau taldea utzi zuen. Hurrengo urtean Steve Harrisek esaten duen bezala *frustrazioa* jarraitu zuen eta nahiz eta piano jole bat jarri Iron Maiden ez zuen batere arrakastarik. Baina ateak zabalduko zitzaizkion 77.eko abenduaren 24 Emi Records disko konpainiak Steve Harris deitu zuenean kontratu bat zinatzeke. Orduan izan zen Steve lau gitarra eta Paul Di'Anno kontratatatu zituenean. 1980.eko abuztuan Iron Maiden diskoa grabatu zuten eta album honekin Top5 zenbakian jarri ziren Erresuma Batuko zerrendan. Urte bera horretan Harris, Murray, Di'Anno, Clive Burr baterian eta Adrian Smith gitarra nagusian Killers diskoa grabatu zuten eta Iron Maiden-en lehenengo tour-a hasi zuten mundu osotik. Di'Anno zeuzkan arazo batzuen ondorioz taldea utzi behar izan zuen 1981.ean baina Steve-ek Bruce Dickinson aurkitu zuen, eta batzuentzat taldearen hondamendia izango zena Iron Maiden-i mundu mailako fama eman zitzaion jendea harriturik uzten bere ahots erregistro agudoarekin. Bruce Dickinsonekin The Number Of The Beast diskoa grabatu zuten eta honekin zerrendako lehenengo postura heldu ziren. Hurrengo bederatzi urteetan (81-90) Iron Maiden bost album atera zituen eta bostekin Top5 edo hobeto egon zen zerrendan. Hauek izan ziren taldearentzako urterik hoberenak eta audientzia hogeita bost bider biderkatu zen mundu osotik. Urte tarte horretan Nicko McBrain bateria jolea sartu zen Iron Maiden-en eta 1991.ean Janick Gers ere. 1993. urtean Fear of the Dark grabatu zuten eta berriro ere lehenengo postua eskuratu zuten lehenengo astean argi utziz forma ezin hobean zeudela. Hurrengo urtean Dickinson taldea utzi zuen eta Blaze Bayley hasi zen abesten Iron Maiden-en, baina Steve eta Bruce zeukaten desberdintasun

musikalak gaudituta asken hau urte honen hasieran bueltatu zen (1999) eta berarekin Adrian ere. Blaze taldean egon zen denbora tartean X Factor eta Virtual XI grabatu zuten, asken hau berriro lehenengoa jarri zelarik Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan zerrendetan. 2000 urtean Iron Maiden-en jirarik hoberena ikusiko dugu hiru gitarra joleekin eta Bruce Dickinson-ekin berriro ahotsean.

Entzunaldia

Two Minutes to Midnight:

Wrath child:

Musika Mota: Ahots Musika instrumentuen laguntzaz

(Harizkoak, Perkusiozkoak)

Erritmoa: Lautakoa

Tempo: Allegro

Estruktura: Polifonia Bertikala

Hizkuntza: Ingelesa

Mota: Profanoa

Forma Musikala: Abestia

***Ondorioak:**

Kronologia: 1982

Estiloa: Heavy Metal

Eskola: Ingalaterra



Duela 12 urte Eibarren sortutako euskal talde Heavy-a da Su Ta Gar. Hau da gaur egun Su Ta Gar taldearen banaketa:

Gitarran: Xabi Bastida

Baxuan: Asier Osoro

Baterian: Iban Zugarramundi

Ahotza eta gitarra: Aitor Gorosabel Garai.

Bere etxe diskografikoa esan ozenki izan da betidanik, baina asken diskoa eta maketaren bergrabaketa gor diskografikoarekin atera du. Arazoa izan zen esan ozenki proposatzen zitzaiona zela diskoa ordaintzea eta salmenten %50-a emango zietela baina Su Ta Gar-ek eskatzen zuen kontratu bat eta hori gor disketxean aurkitu zuen.

Su Ta Gar duela 12 urte atera zuen bere maketa. Maketa hori nahiz eta soinu aldetik ez zegoen ondo grabatuta egundoko apurketa egin zuen euskal taldeen artean. Esan dezakegu Su Ta Gar dela euskal heavy-aren sortzailea eta bere erreferentzia handiena. Bere hasierako garaian oso errez sartu zen taldeen artean beraien abesti iraultzaile eta musika gogor baina kalitate onarekin non Metallica-ren aztarnak nabariak ziren. Beraien lehen diskoa JAIOTZE BASATIA izan zen. Diskoa oso ona (bere diskoa onena nire ustean) musikaren aldetik, hemen beraien estiloa nabaria da, eta letrak nahiko landuak. Hemen beraien kontzertuetan oraindik ere jotzen duten jo ta ke abesti mitikoa agertu zen. Beraien bigarren diskoa espektatiba guztia asetuta zituen HORTZAK ESTUTURIK diskoa aurrekoa bezala arrakasta handia izan zuen, hemen itxaropena eta nazka abestiak nabarmentzekoak dira. Lehena balada izan arren oso ona da eta bigarrena letra gogorra eta oso zuzena duen abestia da. Baina talde guztiek daukate beraien ardi beltza eta hori MUNSTRO HILAK diskoa izango da. Diskoa guztiz ezberdina (niretzat nahiko komertziala) abesti lasaiagoak, letrak gehiegi landuak eta nahiko zentzuratu... baina ala ere badu abesti interesgarriren bat jendearen ustean (nik ez dut bat ere aurkitu). Hirugarren diskoa eta laugarren diskoaren tartean taldea era bat lur jota utzi zuen gertakizun bat gertatu zen. Borxa, bateria zena (oso ona gainera, nire uztez Europako honenatariko bat) jai batzutan zegoelarik zubi batetik uretara jausi egin zuen eta pentsatzen zuen baino ur gutxiago zegoenez ezindua gelditu zen. Baina taldea aurrera jarraitu zuen eta beste diskoa bat atera zuten SENTIMENAK JARRAITUZ. Diskoa benetan ona baina beraien estilotik kanpo. Abesti oso sentimentalak eta goibelak. Diskoa oso tristea da eta non Borxak konposaturiko hainbat abesti ageri dira, gainera abesti batean abestuko du Aitorrekin batera, non bere goibeltasuna abestian ageriko da. Abesti hau zuloaren zuloa da. Baina ba dauzka abesti kañeroak "putrea" eta abesti ez hain kañeroak baina nahiko onak "gautxoriak adibidez. Gainera diskoa honetan Ska musikari tartetxo bat egingo diote errepide honetan galdurik, abesti ona benetan. Diskoa honen ostean beraien diskoa landuena, gaiaren aldetik, atera zuten. AGUR JAUNA GIZON

TXURIARI. Portada bakarrik ikusita ikus dezakezu ze nolako kritika egiten duen diskoa honetan, ume baten begiak agertzen dira malkoez bustiak eta bere

malkoetan euliak, dena marroi kolorez, eta sudurpean basamortu bat. Portada gogorra eta sugerentes batera. Beraien lehen diskoetan poliziaz, presoetaz eta indepentziaz mintzatzen ba ziren diskoa honetan Irlandako egoeraz, desforestazioaz, gizaki zuriaren zapalketaz, eta Amerikaren aurkikuntza

ekarri zituen ondorioetaz herri indigena askotan mintzatzen da. Diskoa kritikoa benetan, gaur egungo gizartearekin. Diskoa honen astean beraien maketaren bergrabaketa gehi "jo ta ke" bideoa (ordenadorean ikusteko) atera zuten, idei guztiz komertziala edo denbora behar zutun hurrengo diskoa ateratzeko? Azkenik HOMO SAPIENS diskoa atera zuten. Diskoa hau ez dut asko entzun baina ba dirudi ba daukala abesti batzuk beraien estilotik kanpo daudenak baina nahiko onak direnak.

Aipatu beharrekoa da Su Ta Gar-ek kontzertuetan erabiltzen duen teknika berria. Eszenatokiaren goiko aldean dauden fokuak pizten eta itzaltzen esaldiak sortzen dituzte.

Esan behar da ere Su Ta Gar nahiko internazionalak direla eta Alemanian, Frantzia eta Italian jo dutela.

Entzunaldia:

Gau Iluna Amaitu Da:

Musika Mota: Ahots Musika instrumentuen laguntzaz

(Harizkoak, Perkusiozkoak)

Erritmoa: Lautakoa

Tempo: Andante, Molto Allegro

Estruktura: Polifonia Bertikala

Hizkuntza: Euskara

Mota: Profanoa

Gaia: Politika

Forma Musikala: Abestia

***Ondorioak:**

Kronologia: 1997

Estiloa: Heavy Metal

Eskola: Euskal Heavy–a

Askorentzat, handienak. Gaur egun ezagutzen dugun HEAVY METAL a sortu duen taldea, estilo honetan berrikuntza gehien sortu duena (ala ere, kritiko asko ez dizkiote estilo honetan kokatzen) eta guztiz adostasuna zegoen taldea, formula biribil magistrala zena, taldeko kide bat falta eta desagertu izan zenean, ezin izan zen berregin. Talde bat bere garaikoen mirespena irabazi zuena eta talde erraldoiaren dimentsioa, ROCKaren klasiko absolutua, denbora pasa ala handituz eta handituz doana.

LED ZEPPELIN jarraipen bat bezala jaiok izan ziren, talde handi baten desagertzearen ondorioz, aipamen espeziala izan duena, YARBIRDS. BLUES PROGRESIVO britainiarren lehenengo formazioa, non ERIC CLAPTON, JEFF BECK eta JIMMY PAGE, bere historiaren bukaera hasi egiten du, JEFF BECK talde hau usten duenean bere talde propioa sortzeko asmoz, JEFF BECK GROUP bezala ezagututa izango zena. PAGE taldea jarraitzeko esfortzuak egin zituen, baina kontratu diskografiko baten eza eta bere ideei musikalak, bat ez zetozenak beste talde–kideekin, YARDBIRDS taldeari amaiera eman zioten. Honela, 1968 urtearen irailean, PAGE talde berri bat sortzeko pausu berriak ematen ditu. Harremanak izan zituen lehenengoarekin aintzinako laguna da, sesio musikoa dena, PAGE sesio musikoa zen urteetakoa, alegia. JOHN PAUL JONES izena du, hau baita ere JOHN BONHAM perkusionista eta geroago ROBERT PLANT bokalistarekin harremanetan jarriko dena. Erlazio hauek LED ZEPPELIN non hasiera direla esan dezakegu.

YARBIRD en material birziklatu ondoren eta PLANT eginiko konposizio batzuekin batera, 1968ko urria, LED ZEPPELIN, bere lehenengo diskoa miragarria grabatu zuten. Diskoa bat, muy en bruto grabaturikoa, baina ala ere, LED ZEPPELIN formula osatu zuten osagaiak zituena. BLUES PROGRESIVO dentsoa, HEAVY METAL enbrionarioa, ROBERT PLANT en ahots gogorra, base erritmiko gogorra, oso pizutxo, JIMMY PAGE en gitarra bolumen maximora eta distortsioz jantzita... 1969ko urtarrilean diskoa merkatuetan salmentan jarri zenean, mundu osoan zehar konmozio ikaragarria egon zen.

LED ZEPPELIN I arrakasta miragarria izan bazen, aurreikuspen guztiak apurtu zituelako, LED ZEPPELIN II hilabete gutxi ondoren editatua izan zena, 1969 azarora zehazki, LED ZEPPELIN en konsagrazioa eragin zuen, ROCKaren munduan, goreneko talde bezala. Bere kontzertuak guztiz jendetsuak bihurtu egin ziren, Europatik, Amerikatik, Japoniatik... izugarriko kontzertuak, gutxienezko lau orduak zituztenak, miresgarriak

ziren interpretazioak, ikuskari bat, suntsitzen zuen edonon eta edonori.

Eta gainera taldeak, sormen eta kalitate handia mantentzen zuten, hala eta ez mantendu patroï finko bat. Bere hirugarren diskoan, soinu akustikoekin frogatu zuten, bere lehen diskoak betetzen zuten HARD ROCKatik aldenduz, baina ere bere fan guztiak liluratu zituen. Bestaldetik, bere laugarren diskoan LED ZEPPELIN IV apoteosia lortu zuten, honako abestiez baliaturik: Black Dog, Going To California , Stairway To Heaven , Misty Mountain Hop... dudarik gabe abesti hilezinak, diskoa bat ROCKaren talentu hoberenarekin.

Beraien kontzertuak, hain intentsitate handia zeukaten, pelikula batetan grabatuak izan zirela, New York MADISON SQUARE GARDEN jo zutenean, 1973 uztaila THE SONG REMAINS THE SAME. 70 hamarkadaren erdialdean LED ZEPPELIN ROCK talde handiena zen dudarik gabe.

Baina hortik hasita arazoak hasi egin ziren. ROBERT PLANT ek, auto istripu bat eduki ondoren Grezian oporretan zegoelarik, urte batez gelditu zuen taldea. Ondorengo diskoan PHISYCAL GRAFITTI, LED ZEPPELIN en progresioa eta berriztapenak galdu egin ziren, lehenengo diskoetatik aldenduz. Baina hau ez zen guztia izan: ROBERT PLANT en errekupeazioa eta kontzertuen berzarketa ondoren, 1977 tour amerikarrean, PLANT en alaba bat hil egiten da, hau depresio latz batetan jauzten delarik, tour a utziz. Ez zuten Amerikan gehiago joko.

1978 urtean, taldea, JIMMY eta ROBERT en harremanak oso txarrak zirelarik (esaten da), bere azkeneko estudio diskoa grabatzera elkartzen dira Estokolmon: IN THROUGH THE OUT DOOR. Diskoa editatu ondoren historiara pasa diren bi kontzertu jo zituzten KNEB WORTH festibalean, hau bere azkeneko bira izango zelarik 1980 urtean, Europan.

Gira hau bukatu ondoren eta bertako arrakasta zela eta, Ipar Amerika bira bat egiteko prestaketak egiten hasi ziren, handiena izango zena alegia. Entseiu egin ziren eta egutegi bat eratua zegoen kontzertuen datekin, baita 1981 diskoa bat grabatzeko asmoak ere. Baina guztia bukatu egingo zen 1981ko irailaren 25 gauerdian.

Gau hartan, JIMMY PAGE, WINSOR ko gaztelu etxean, Ingalaterran, festa bat eman ondoren, JOHN BONHAM kantitate alkohol handiegia edan zuen (esaten da 20 vodka laranjaekin ordu eta erdi batetan). Txarto sentituz gela batera abiatzen da, oso txarto sentituz, mozkorra lo egiteko asmoaz. Hurrengo goizean esnatzera doazenean, ez duela erreakzionatzen konturatzen dira, baita ere toxikapen gogor bat duela ere... larrialdi medikoari deitu egiten zaio eta hau BONHAM ikustean berehalako diagnostikoa egiten du: BONHAM hil da toxikapen etiliko baten ondoren.

Taldeak ez zuen inolako agerpen publikorik egingo ezta komunikaturik ere ez, bi hilabetetan zehar. Bakarrik Estatu Batuen gira deuseztatu egiten da eta honen ondoren, BONHAM heriotza dela eta, LED ZEPPELIN bukatu egingo da, ez baitu JOHN BONHAM tzerako ordezkorik aurkituko. Eta hortik hasita bere legenda hasi egiten da... LED ZEPPELIN handiak baziren talde bezala existitzen, banatu ondoren, bere diskoen, bideoen, merchandising en, salmentak lau bider egin zuten. Berak asmatutako generoa, gloria momentua biziko zuen aldian, honelako taldeen jaiotza zela eta nola IRON MAIDEN, DEF LEPPARD, SAXON... azken batean NEW WAVE OF BRITISH HEAVY METAL, beraiek, bere izena ROCKaren analetan usten zuten goreneko legenda bihurtuz.

Urte batzuk geroago ROBERT PLANT, bakarkako karrera hasi zuen, JIMMY PAGE zinerako musika konposatu zuen, JOHN PAUL JONES zenbait agerpen egin zituen lagunuen diskoetan... 1994 arte non lehenengo biak elkartu ziren LED ZEPPELIN en istorioa berpizteko asmoaz, baina ez zen posiblea izan. Dudarik gabe HEAVY METAL eta HARD ROCKaren goieneko eta hoberen banda izan zen, eta ez da egongo inoiz honelako banda bat.

DISKOGRAFIA ESENTZIAL.

LED ZEPPELIN I, 1968.

LED ZEPPELIN II, 1969.

LED ZEPPELIN IV, 1971.

THE SONG REMAINS THE SAME, 1976.

Entzunaldia:

Stairway to Heaven:

Rock & Roll

Musika Mota: Ahots Musika instrumentuen laguntzaz

(Harizkoak, Perkusiozkoak)

Erritmoa: Lautakoa

Tempo: Andante, Allegro

Estruktura: Polifonia Bertikala, Melodia lagundua

Hizkuntza: Ingelesa

Mota: Profanoa

Forma Musikala: Abestia

***Ondorioak:**

Kronologia: 1960–1970

Estiloa: Hard Rock – Heavy Metal

Eskola: Ingelesa

Bibliografia:

Heavy Rock aldizkariaren Los discos del Milenio alea

Internet: www.ironmaiden.com

www.manowarkingsofmetal.com

www.sutagar.com

www.led-zepelin.com

www.rockmusic.org

www.gordiscos.com

www.esan-ozenki.com

Elhuyar hiztegi entziklopedikoa

Iron Maiden: Live at Donington CD-ROMa

Ed Hunter CDa

Su Ta Gar: Agur Jauna Gizon Txuriari CDa

Led Zeppelin: Remasters CDa

10

S

A

A

B

B

A

A

S

C

C

B

B

A

A

S

IN

C

C

B

B

C

C

K

S = Sarrera

A = 1. Gaia

B = 2. Gaia

IN = Interludioa

K = Koda

__ = Lotura

S

A

B

IN

B

A

S

K

S = Sarrera

A = 1. Gaia

B = 2. Gaia

IN = Interludioa

K = Koda

__ = Lotura

S

S

A

B

A

B

IN

C

C

K

12 20 8 8 8

8 8 8

S

A

A

B

A

A

A

A

A

B

B

B

B

IN

K

S = Sarrera

A = 1. Gaia

B = 2. Gaia

IN = Interludioa

K = Koda

__ = Lotura

4 4 4 4

4 4 4 4 4

4 4 4 4 4

S

A

B

A

B

IN

A

B

K

8 8 8

8 8

8 8